

# azpeitianzer?

udal aldizkaria 155. zenbakia  
2013ko martxo



## Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin behinekoz onartuta



*Banku etikoaren  
aldeko apustua*




*Azpeitiko altxorrak,  
ikusgai*

# ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Banku etikoa
- 5 Plan orokorra
- 13 Motxak
- 14 Bisita gidatuak
- 15 Agenda
- 16 Asteburu musikalak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91



Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.



## telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailletza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

## botikatxandak



**ALBERDI.** Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74  
XXXXXXXX

**ARANBURU.** Plaza Nagusia - Goiko kalea 2  
Tel.: 943 81 13 50  
XXXXXXXX

**BERISTAIN.** Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49  
XXXXXXXX

**EIZAGIRRE.** Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74  
XXXXXXXX

**JACOME.** Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58  
XXXXXXXX

## Udal zerbitzua

### Sexu eta harremanen aholkularitza



Azpeitiko Udalak, bere Parekidetasun sailetik, sexologia zerbitzua eskaintzen urte batzuk daramatza, baina gaur egungo beharrak eta aukerak kontuan hartu ondoren, berrikuntza batzuk egitea erabaki da ahalik eta eskaintza hobereana emateko asmoz.

Azpeitiko herritarrek, haur, gazte nahiz helduek sexualitatearen eta harremanen inguruan dituzten kezka, interes eta berriak jasotzeko gunea izan nahi du zerbitzuak. Aurrez aurreko arreta, sare bidezko aholkularitzarekin uztartuz. Askotan buruhausteak eta ezintasunak sortzen dituzten zailtasunak, zalantzak nahiz proposamenak jasotzeko aukera eskainiz. Zerbitzuak herritar guztiengana iristeko asmoz hiru adar edo bitarteko sortuko ditu bakoitzak bere garapen propioa izango duelarik:

- **Plax! Plaxera plazara. Herritarrentzat.** Herritarrei zuzendutako sexu eta tratu onen aurrez aurreko aholkularitza zerbitzua.
- **Plax! Plaxera plazara sarean.** Herritarrei zuzenduriko sexu eta tratu onen aholkularitza zerbitzua sarean.
- **Plax! Plaxera plazara gazteentzat.** Gazteei zuzendutako sexu eta tratu onen aurrez aurreko aholkularitza zerbitzua.

## Udal erabakiak

Martxoak 5ean egindako Udalbatza Osoak honako erabaki hauek hartu zituen:

- 1.- Udalbatza Osoak 2013ko otsailaren 5ean egindako bilkuraren akta aho batez onartu ziren.
- 2.- EAJ taldeko zinegotzi jarlekua betetzeko Jose Miguel Aizpuru Querejeta zinegotzi-hautagaiak karguaren jabetza hartu zuen.
- 3.- Espetxeetan preso dauden senideentzat garraiorako banakako diru-laguntzak emateko oinarriak aho batez onartu zituzten.
- 4.- Azpeitiko Udalaren eta Fiare Elkartearen arteko Lankidetzaren hitzarmena sinatzea (Fiare proiektua) aho batez onartu zen.
- 5.- Martxoak 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, Azpeitiko Udalaren adierazpen instituzionala aho batez onartu zen.
- 6.- Bildu taldeak aurkeztutako honako mozioa onartzea: Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak hartutako ebazpenaren baitan, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina bertan behera uztea onartu zen Bildu eta EAJ taldeen aldeko botoekin. Hamaikabatek ez zuen parte hartu bozketan.
- 7.- Bildu taldeak aurkeztuta Ni despidos, ni reformas, ni imposiciones. Enplegua defenda dezagun! manifestua Bildu eta Hamaikabat taldeen aldeko bozkei esker onartu zen. EAJ taldeak aurka bozkatu zuen.
- 8.- Galderak eta erreguak.

# Banku etikoaren aldeko apustua

Udalbatzan onartu ostean, eta hitzarmena sinatutakoan, Fiare banku etikoaren kide izango da aurrerantzean Udala



**a**zpeitiko Udalak Fiare banku etikoaren aldeko apustu sendoa egin du. Fiare, aurrezkiak ekonomia sozialera eta lankidetzara bideratzea helburu duen proiektua da, beti ere, mundu justuago bat lortzeko. Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak azaldu du Fiare herri partaidetzan oinarritutako egitasmo bat dela eta ekonomia sozialaren aldeko apustuarekin bat egiten duela Udal Gobernuak: “Diruaren erabilera etikoa izan behar du, horregatik banku etikoen aldeko apustua egiten dugu, eta etikoa diogunean gure aurrezkiak mundu justuago bat lortzeko erabiltzea eskatzen dugu, ez adibidez armak erosteko edo ingurugiroa puskatzeko edo espekulatzeko proiektuetan”.

---

**“Etikoa diogunean,  
gure aurrezkiak mundu  
justuago bat lortzeko  
erabiltzea eskatzen dugu”**

Ekonomia erreal baten alde egin nahi da, bankuek berez izan beharko lukeen jarduerara betez: “Banku etikoen bidez ekonomia erreala bultzatzen da, gizartean inpaktu positiboa duten proiektuak sustatzeko: gai soziala, ingurumenean, bazterketa jasaten dutenengan, bidezko merkataritzan. Dirua ez da erabiltzen ekonomia espekulatio baten mesedetan. Gizarte osoarentzat onak diren proiektu errealean aldeko apustueta”.

Fiare aukeratu da, eredu parte-hartzaile eta gardena delako. Horrela herritarrak eta eragileak Fiare ezagutu eta bertan bazkidetzara animatu ditu alkateak, “gardentasuna eta partaidetza ikur dituelarik bizi ditugun garaiotan gizartearen esku eta gizartearen zerbitzura dagoen horrelako bitarteko finantziario bat izatea inoiz baino balio gehiago baitu”.

# erreportajea



## Udalbatzak Azpeitiko Hirigintza Plan Orokorra behin-behinekoz onartu du

Dokumentua “gai estrategikoa” dela herriarentzat agertu du Eneko Etxeberria alkateak

**P**ausoak ematen darrai Azpeitiko Udalak herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren harira. Otsailaren 26an egindako Udalbatzak behin behinekoz onartu zuen dokumentua, Bildu eta EAJ talde politikoan aldeko botuei esker, eta Hamaikabat taldearen aurkako botuarekin.

Dokumentua 2012ko uztailean onartu zen hasierakoz, baina aldaketa nabarmen batzuk izan ditu ordudani; besteak beste, eta aldaketa esanguratsuena bezala, Perdillegiko Perretxikoa bezala ezagutzen den eraikineko gunean etxebizitzak eta lur-azpiko aparkalekuak egitea aurreikusten da.

Dokumentua Eusko Jaurlaritzako Ingu-  
rumeneko eta Etxebizitzako sailletara eta Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaliko du Udalak orain eta erantzuna jasotakoan, Udalbatzatik pasatu beharko da berriro behin-betikoz onartu dadin.

---

“Udaleko alderdien artean ahalik eta kontsentsu handiena lortzen saiatu gara”

Udalak. Jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali beharko da, aldizkari ofizialean argitaratzeko. Beraz, hilabete batzuk zain egon beharko da prozesu guztia amaitu aurretik.

Eneko Etxeberria alkateak dokumentua “gai estrategikoa” dela nabarmendu zuen eta alderdi eta teknikoak zoriondu nahi izan zituen: “Udaleko alderdien artean ahalik eta kontsentsu handiena lortzen saiatu gara, denon konpromisoarekin. Bilera asko egin ditugu, eta ados jartzeko gai garela erakutsi dugu. Azaldu diren zalantzak eta iritziak pisuzkoak izan dira, eta hobeberehaz egindakoak. Zorionak beraz parte hartu duten politikoa eta teknikoei”.

Ondorengo orrialdeetan Azpeitiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren ildo nagusiak agertuko ditugu.



## ETXEBIZITZAK

### Etxebizitza politika justuagoa

Hurrengo 10 urteetan 1.300 etxe egitea aurreikusten da, gehienak babestuak



Aurreko zirriborroak agertzen zuen bezala, behin-behineko onartutako dokumentuak ere 1.300 etxebizitza eraikitzea aurreikusten ditu hurrengo 8 edo 10 urtetan. Hala ere, Udal Gobernuak esfortzu berezia egin du etxebizitza sozialen alde, Babes Ofizialekoak zein tasatuak.

Modu honetan, hurrengo urteetan Azpeitian egingo diren etxeen gehiengoak babestuak izango direla aurreratu dute arduradunek: "Honela, etxebizitza politika justuago

bat egiteko aukera izango dugu. Udalak, administrazio publiko bezala, eskuhartzea izan dezakeela uste du etxebizitza politikan eta ber esku dagoen guztia egingo du ahalik eta politika justuena izan dadin".

---

**“Administrazio publiko bezala, eskuhartzea izan dezakeela uste du Udalak etxe politikan”**

“Nahiz eta 1.300 etxebizitza aurreikusi dokumentuak, kopuru hori benetan ez da horrela izango. Alde batetik, etxe bizitzak hainbat eremutan eta kopuru nahikoan aurreikustea promotore pribatuaren monopolioak ekiditzen ditu. Bestetik, hainbat eremutan oso zaila izango da, dauden arazoak medio, etxebizitzak eraikitzea. Azkenik, planaren bitzita urte luzeotakoa dela nabarmendu behar da. Oso epe luzerako beharrei erantzuten die.”, esan du Eneko Etxeberria alkateak.



Perdilegi Oktogonoa.

## PERDILEGI

### 110 etxebizitza sozial eraikitzea aurreikusten da Oktogonoa eraikineko gunean

#### Lur-azpiko aparkamenduak ere egingo litzateke

Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorraren berrikuntza nagusia Perdilegi kalean Oktogonoa edota Perretxikoa bezala ezagutzen den eraikineko eremuan aurkitzen da. Udalak gune honetan 110 etxebizitza eta lur-azpiko aparkamenduak egitea aurreikusten ditu.

Berrikuntza hau azken hilabeteetan adostu du Udalak. Izan ere, lur hauen jabetza Udalarena da eta horregatik, bertan egingo liratekeen etxebizitza guztiak babestutakoak (Babes Ofizialekoak zein tasatuak) izango lirateke.

---

**“Planak herri barrurantz begiratzen du, herriaren hazkundera barrurantz mugatuz”**

Perdilegi eremuan etxebizitzak egiteko aukera izatea, herrira barrurantz begira jartzen dela nabarmentzen du Udal Gobernu taldeak. “Herria kanpora joan beharrean, hau da, hazkundera kanpora egin beharrean, barrura begiratzen dugu. Herri barruko guneak aprobetxatzen

ditugu”, azaldu dute. Horrela planak herri barrurantz begiratzen du batik bat herriaren hazkundera herrigunera mugatu da, hau da, “lehendik hirigintzako jarduerarako izendatutako eremuak garatzea aurreikusi da lehenengo, Loiola, Azkune eta Oiarzabal eremuetara joan gabe”.

Gainera etxebizitzak egiteak lur azpiko aparkalekua egiteko aukera ematen dio Udalari. “Udalarentzak eremu horretan aparkaleku handi bat egiteak oinezkotzearen aldeko apustu garrantzitsua gauzatzeko aukera ematen du eta irtenbidea oso egokia da”.

# ITURZULO-ESKLABAK

## Planak 274 etxebizitza aurreikusten ditu Iturzulo eremuan

Kopuru honetatik, 150 etxebizitza libre izango ziren eta 124, berriz, babestuak

Iturzulo-Esklabak eremuko plangintza ez da asko aldatu dokumentu berrian. Honela, eremu horretan 274 etxebizitza egitea aurreikusten da; haueetatik 150 libreak izango lirateke eta gainontzeko 124ak, berriz, babestutakoak.

Behin-behineko onartutako dokumentuak, ordea, baditu zehaztapen gehiago; etxebizitzaren altuerari dagokiona adibidez. Inguruko bizilagunek

egindako alegazioak kontutan hartu eta aldaketa batzuk egin dituzte planean. Esklaben aurrean ez da etxerik egingo, denak atzealdean eraikiko dira eta altuera handiena zazpi solairukoa izango da.

Bestalde, Izarraizpe eremuan (Esklabak eta Ikasberri Ikastola artean) ez da etxebizitzarik eraikiko, lur zati hori ekipamenduetarako izango da.

---

**“Izarraizpe eremuan ez da etxerik egingo, ekipamenduetarako izango da”**



Esklabak-Iturzulo eremua

# LUR INDUSTRIALAK

## Bost eremu handi aurreikusten dira ekonomia kokatzeko

Lur industrial berriak diseinatzea eta prestatzea etorkizuneko Azpeitia eraikitzeko gai garrantzitsua da

Lur industrialei dagokienez, lur industrial berriak diseinatzea eta prestatzea etorkizuneko Azpeitia eraikitzeko gai garrantzitsua da. Ekonomia arloan ezinbestekoa da gure garapena ziurtatuko duen moduko Azpeitia bat aurreikustea.

Plan Orokorrak bost eremu handi aurreikusten ditu industria kokatzeko. Hauetatik lau pribatuak dira, hain zuzen ere, Trukutxo, Anardi, Urrestila eta Larre. Bosgarrena, aldiz, publikoa da; Larrin.

“Gune industrial publiko bat egongo da; Larrin, eta Sprilur izango da jabea”

Larrin eremua esku publikoetan dago, Sprilur erakunde publikoa da bere jabe bakarra. Udalak lur hauek behar bezala erabiliak izateko beharrezko neurriak har ditzan eskatu dio, herrian lur industrialen eskaintza publiko egoki bat ahalik eta azkarren izateko asmoz.

**Hala ere, Udalak ez du ahaztu industria eremu zaharrak berritu behar direla. Horregatik Plan Urbanistikoa baino haratago joanik, eremu zaharren biziberritzea gauzatzeko neurriak lantzen ari da.**



Larrin eremua



Udaleko zinegotzi, teknikari eta alderdien batzordearen bilkura.

## PROZESUA

### **Plan Urbanistikoak epe luzeko ariketa estrategikosri erantzuten dio**

Prozesuan bi hanka nagusi izan dira; zinegotzi, teknikari eta alderdien batzordea eta herritarren partaidetza

Denbora luzea iraun duen prozesua izan da. Azpeitiko Udalak Plan Urbanistikoa onartzearen atzean, lan asko ezkututzen da.

Plan Urbanistikoaren erabakia hartzeko prozesuan bi hanka nagusi egon dira; lehena eta nagusiena, Udaleko zinegotzi, teknikari eta alderdiek osatutako batzordea. Guztien artean Plan Urbanistikoaren ildo guztiak eztabaidatu dira.

---

**“Komunikabideetan  
Planaren berri eman da  
herritarren ekarpenak  
biltzeko asmoz”**

Horrela, batzorde honetan adostasunak lortzeaz gain, gure herriarentzat aberasgarriak diren iritzi trukaketak eta ideiak sortu dira. Planteatu diren eztabaida guztiak modu eraikitzailean izan dira eta parte hartu duten guztiak ikusi ahal izan dute batzuek zein besteek defendatu dituzten iritziak pisuzkoak direla. Batzorde hau, izaeraz irekia izan denez, Azpeitiko herritarrek ere parte hartzeko aukera izan dute zuzenean.



Bigarren hanka, beraz, herritarren parte-hartzean oinarritu da. Horrela, egungo teknologien bitartez jakinarazi zaie herritarrei Planaren edukia eta eztabaida ildoak. Beraiei iradokizunak eta proposamenak aurkezteko aukera eskaini zaielarik.

Herritarren ekarpenak biltzeko asmoz, komunikabide desberdinetan eta Udal aldizkarian une oro eman da Planaren berri. Horrez gain, aholkularitza batzordea osatu da herriko eragile nagusienekin, besteak beste auzo-alkateak, ikastetxeak, sindikatuak eta baserritarrak eta hauek dituzten behar edo eskaerei erantzuna eman.

Behar guzti hauek 2025 urteko horizontean jarri behar dira, epe motzetik luzera igaroaz. Beraz, Planak aurreikusten dituen neurriak epe motzeko ikuspegi soilarekin ezin dira

ulertu. Derrigorrez, epe luzeko ariketa estrategikosri erantzuten dio.

Azkenik, Azpeitia inguruko bailara eta herriekin oreka bilatuz osatzen da Plan Urbanistikoa.

**Plan Urbanistikoa herri batek izan dezakeen plan estrategikoa nagusiena da. Planak, Azpeitiko herriaren ikuspegi orokor eta koordinatu bat kontutan hartzeaz gain, herriko beharrei erantzun behar die.**

**Planak hainbat gairen arteko ikuspegia batzea exijitzen du, adibidez etxebizitzak, aktibitate ekonomikoa, ekipamenduak espazio libreak, garraioa, oinezkoen eta bizikleten sarea, hondakinen kudeaketa, azpiegiturak, uraren zikloa, aisialdi eremuak...**

**Horregatik, Plana lantzean gai guzti hauetan planteatzen diren helburu eta proposamenak kontutan hartu behar dira.**



Azautza eremuko etxeak

## GATAZKA

### Urteetako gatazka eta arazoak atzean uzteko bidea da Plan Orokorra

#### Auzitegi Gorenak 2007ko arauak ezabatu ditu

Plan Orokorrak urteetako gatazka eragin du herrian eta Udalean. Udala epaitegie-tan bere etorkizuna kinka larrian jarrita ibili da, eta, aldi berean, herriaren paralizazio handia eragin du tresna estrategiko hau onartu gabe egoteak. Udalak baliabide ikaragarriak jarri beharra izan ditu gai honetan, eta sortutako tentsioak eremu guztietan izan du eragina.

Auzitegi Gorenak 2007ko arauak erabat desegokiak zirela erabaki zuen. Gauzak horrela, Azpeitian gaur egun 1992an onartutako Hirigintza Plana dago indarrean. Ondorioz, orain arteko tresna urbanistikoak baliorik gabekoak direlako, Udala plan berriarekin sortutako arazoei irtenbidea ematen saiatuko da.

Plana onartzea udaletxeko bi indar nagusien babesarekin hartu izanak, adostasun maila handia erakusten du. Azpeitiko herria beste norabide batean jartzen da, oso garrantzitsuak diren beste arazoetan zentratzeko aukera emango dio Udalari, eta urteetako liskarrak gainditzeko bidean jarritz.

Plan Orokorraz gain, sortutako arazo judizialen aurrean beharrezkoak ziren tresna urbanistikoak diseinatu, onartu eta herritarrak beharrezkoa duten babesa juridikoak izan zezaten alde lan egiteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernu taldeak 2012ko uztailean.

**Bereziki aipatu behar da une honetan indarrean dagoen Azautza eremuko gatazka. Gatazka honetan arduraz jokatzeko eskatzen die Udalak demanda-jartzaileei, “bizilagunek horrenbeste urte ondoren sufritzen ari direnak ez du inolako justifikaziorik eta ezin da inolaz ere onartu”. Arazo honek kezka berezia sortzen du Udalean eta bere baliabide guztiak ari da erabiltzen irtenbide egoki bat aurkitzeko.**

# Azpeitiko altxorrak agerian

Bakardadearen Kapera eta Anaia Garateren jaiotetxea bisitatzeko aukera izango da 'Ezkutuko altxorrak-Ignaziotar lurraldea' egitasmoaren baitan



**a**zpeitiko herriak ezkutuan dituen altxorrak agerian geratuko dira ondorengo asteetan, 'Ezkutuko altxorrak-Ignaziotar lurraldea' egitasmoari esker. Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena bailarekin elkarlanean antolatutako ekimenaren helburu nagusia, herritarrek gertu dituzten baina ezagutzen ez dituzten altxor edota leku berezi horiek ezagutaraztera ematea da.

Honela, besteak beste, Azpeitiko Bakardadearen Kapera, Legazpiko Mirandaola burdinola edota Arrasateko Garagartzako San Migel erretaula gertutik bisitatu ahal izango dira bisita gidatuen bidez. Azpeitiko kasuan, Sebastian Donearen Parrokian kokatzen den Bakardadearen Kapera eta Loiolako

**“Bisita gidatuak egiteko aurrez erreserba egitea eskatzen da ”**

Santutegiko ingurune monumentala, Garate Anaiaren jaiotetxearekin, ezagutzeko aukera izango da.

Bakardadearen Kapera, Sebastian Donearen Parrokiaren barruan kokatuta, Errenazimendu garaiko altxortzat hartuta dago. Kapera bisitatzeko aukerak honako hauek izango dira; martxoak 30 eta maiatzak 4 eta 25.

Loiolako ingurune monumentala, gutxien ezagutzen den Garate Anaiaren jaiotetxea ikusgai egongo da hurrengo asteetan. Errekarte baserria martxoak 31, apirilak 28, maiatzak 26 eta ekainak 2an bisitatu daitezke.

## Funtzionamendua

- Bisita gidatuak alde aurretik eskatuta edo erreserba eginda bakarrik.
- Bisitaren erreserba egiteko azken eguna bisitaren asteko ostiraleko 12:00etan izango da.
- Bisitaren prezioa 2 euro.

## Informazio eta erreserbak

Iraurgi Lantzen agentziako Turismo saila 943 85 11 00

## Asebetez komunikatzeko ikastaroa

**e**dume Salegik "Asebetez komunikatzen ikasi" ikastaroa eskainiko du Hezkuntza sailaren bitartez. Ikastaroan zehar norberarekin eta ingurukoekin asebetez komunikatzen ikasteko aukera izango da. Guztira 12 saio izango dira, astero ordu eta erdikoa bakoitza Sindikatu Zaharreko lehenengo solairuan. Izena eman nahi duten guztiek apirilaren 8a baino lehen egin behar dute, 685 731 301 telefono zenbakian. Ikastaroak 120 euroko prezioa du, eta hilerordaintzeko aukera egongo da.

## Urola Erdiko eskaintza turistikoa Sevatur azokan



**b**osgarren urtez jaramian, "5 geltoki Historian" Urola Bailarako Produktu Turistikoak bere ibilbideari ekingo dio. Martxoaren 15 eta 17 bitartean Donostian ospatu zen SEVATUR Nazioarteko Turismo Azokan egin zuten aurkezpena eta bertan, Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatea izan zen, Jon Peli Uriguen Turismo eta Landa Garapeneko Foru Diputatua eta Roke Akizu Aldundiko Turismo Zuzendariarekin batera.

## Oihana Goenagari harrera



**O**ihana Goenaga igerilari azpeitiarrak markak hausten darrai eta martxo hasieran Infantil Mailako Neguko Espainiako Txapelketan urrezko domina irabazi zuen. Lortutakoaren aurrean, Azpeitiko Udalak harrera egin zion martxoaren 7an. Goenagaren familia eta lagunak udaletxean bildu ziren Udal ordezkariekin batera eta Eneko Etxeberria alkateak txapela jantzi zion txapelkunari eta zorionak eman zizkion lortutako garaipen guztiengatik. Zorionak Oihana!



## Merkatari txikien ikastaroa

**e**gungo egoera ekonomiak merkatari txikiengan duen eragina handia eta krisiari aurre egiteko bide berriak antolatzen jarraitzen du Bertan elkarteak. Horrela, Azpeitiko eta Azkoitiko merkatari elkarteak diren Bertan eta Hemixen eta Merkataritza Federazioak *Social Media Marketing* ikastaroa abian jarri zuten otsaila amaieran. Martxoaren 22 bitartean egindako saio hauen bidez merkataritz txikia sare sozialetan indartzea bilatzen zen.

# agenda



## Apirila

### 2, asteartea

ASTE SANTUA-EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
HH5-LH2 Ezagutza jolasak  
Ordua: 10:00-13:00  
Topagunea: Betharram

ASTE SANTUA-EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
LH3-LH6 Ezagutza jolasak  
Ordua: 10:00-13:00  
Topagunea: Betharram

XIV. GAZTE ASTEA 12-18 urte  
ASTE SANTUA-EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
Futbito txapelketa  
Ordua: 10:00-13:00  
Topalekua: Polikiroldegian

### 3, asteazkena

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
HH5-LH2 Suhiltzaileen etxera  
Ordua: 10:00-13:00  
Topalekua: Betharram

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
LH3-LH6 Eskalada  
Ordua: 10:00-13:00  
Lekua: Betharram

XIV. GAZTE ASTEA 12-18 urte  
ASTE SANTUA-EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
Patata tortilla lehiaketa  
Ordua: 10:00-13:00  
Lekua: Udaletxeko Arkupetan

### 4, osteguna

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
HH5-LH2 Txiki parkea (egun osoko irteera)  
Ordua: 10:00-17:30  
Topalekua: Betharram

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
LH3-LH6 Espeleoabentura  
Ordua: 10:00-17:30  
Topalekua: Betharram

XIV. GAZTE ASTEA 12-18 urte  
Aste Santua- Eskeintza bereziak  
Gazteria Sailak Antolatuta  
Xoxotera irteera (gaba igarotzera)  
Ordua: 10:00-16:00  
Lekua: Gaztelekuan

### 5, ostirala

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
HH5-LH2 Ikuskizuna  
Ordua: 10:00-13:00  
Topalekua: Betharram

ASTE SANTUA- EKINTZA BEREZIAK  
GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA  
LH3-LH6  
Malabar tailerra  
Ordua: 10:00-13:00  
Topalekua: Betharram

### 6tik 24ra

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA  
Astelehenik ostiralera  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa  
Larunbata eta igandetan  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa

### 14, igandea

ASTEBURU MUSIKALA  
KITARRA TALDEA  
Lekua: Udaletxeko Arkupeak  
Ordua: 13:00

### 18, osteguna

TINKO ZINE EMANALDIA  
Lekua: Soreasu Antzokian

### 20, larunbata

ASTEBURU MUSIKALA  
IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA  
Kaleetan zehar  
Ordua: 19:30etan

### 27, larunbata

JUAN M<sup>a</sup> IBARZABAL  
Hegazti erakusketa- Argazkiak  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa

### 28, igandea

JUAN M<sup>a</sup> IBARZABAL  
Hegazti erakusketa- Argazkiak  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa

### 29, astelehena

JUAN M<sup>a</sup> IBARZABAL  
Hegazti erakusketa- Argazkiak  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa

### 30, asteartea

JUAN M<sup>a</sup> IBARZABAL  
Hegazti erakusketa- Argazkiak  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharram Aretoa

# asteburu Musikalak

APIRILA-MAIATZA-EKAINA-UZTAILA

# 2013

## MARTXOA

**24, igandea**

UDAL MUSIKA BANDAREN  
KONTZERTUA  
Lekua: Soreasu antzokia  
Ordua: 19:30

## APIRILA

**14, igandea**

KITARRA TALDEA  
Lekua: Udaletxeko arkupeetan  
Ordua: 13:00etan

**20, larunbata**

IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA  
Lekua: Azpeitiko kaleetan  
Ordua: 19:30

**27, larunbata**

REGGAE GAUA  
Lekua: Sanagustin kulturgunea  
Ordua: 23:00

## MAIATZA

**11, larunbata**

UDAL MUSIKA BANDAREN  
KONTZERTUA  
Lekua: Sanagustin kulturgunea  
Ordua: 19:00

**25, larunbata**

BANDA GAZTEA ETA MUSIKA  
ESKOLAKO TXISTULARIEN  
KONTZERTUA  
Lekua: Sanagustin kulturgunea  
Ordua: 19:00

**26, igandea**

BANDA GAZTEA  
Lekua: Nuarbe  
Ordua: 13:00

**29, asteazkena**

KONTZERTU AKUSTIKOA  
Lekua: Sanjuandegiko Rochas  
taberna ingurua  
Ordua: 21:30

## EKAINA

**1, larunbata**

UDAL MUSIKA BANDAREN  
KONTZERTUA  
Lekua: Sanagustin kulturgunea  
Ordua: 19:00

**7, ostirala**

BANDA GAZTEA ETA MUSIKA  
ESKOLAKO TXISTULARIEN  
KONTZERTUA  
Lekua: Sanagustin kulturgunea  
Ordua: 19:00

**8, larunbata**

BANDA GAZTEA  
Lekua: Nuarbe  
Ordua: 13:00

**9, igandea**

KONTZERTU AKUSTIKOA  
Lekua: Sanjuandegiko Rochas  
taberna ingurua  
Ordua: 21:30

**19, asteazkena**

MUSIKA ESKOLAKO JAIALDIA  
Lekua: Soreasu antzokia  
Ordua: 19:30

**21, ostirala**

IRAURGI IKASTETXEKO ABESBATZAK  
X. URTEURRENA  
Lekua: Soreasu antzokia  
Ordua: 19:30

**23, igandea**

IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA  
Lekua: Azpeitiko kaleetan  
Ordua: 19:30

## UZTAILA

**Data zehaztu gabe**

IMUNTZO ETA BELOKI ETA AERRE  
TEATROA "ON KIXOTE"